



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko maiatzaren 26a

37 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Nafarroako hezkuntzaren eraberritzea arautzeko oinarriei buruzko Foru Lege proposamena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

—Mozioa, Nafarroako Gobernua landa ingurunea sustatzeko Plan bat egitera premiatzen duena, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (5. or.).

—Mozioa, ezintasuna duten pertsonen lan-aukerak parekatzea onesten duena, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak aurkeztua (7. or.).

—Mozioa, Nafarroako Gobernua Marcillako Gazteluaren zaharberritzeari eta erabilerei buruzko urteanitzeko plana egitera premiatzen duena, «Nafarroako Demokraten Elkargunea», «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra», «Ezker Abertzalea» eta «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeek aurkeztua (8. or.).

—Mozioa, lan erreforma gaitzesten duena, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Altsasutik igarotzen den Altzania ibaiaren zati bati buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (10. or.).

—Erregeordeen edo Kapitaniakoa deritzon Jauregiaren bereoneratze planari buruzko galdera, Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak egina (10. or.).

—Izaba-Arette errepidearen mantenimenduari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoiz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina (11. or.).

—Osasun-kostuei aurre egiteko zerga berria ezartzeari buruzko galdera, M^a Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak egina (12. or.).

—29600-8 “Kanpo sustapeneko ekintzak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (12. or.).

- 29330-0 “Lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak (Kalitatea Disinua) FEDER programa” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (13. or.).
- 98020-0 “Azpiegiturako inbertsioak, FEDER programako industriak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (13. or.).
- 30400-0 “Enplegu zentro berezientzako transferentziak, eragiketa arruntetarako” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (14. or.).
- 31160-0 “Azterlanak eta proiektuak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).
- 90021-5 “Kirol instalazioen inbertsioetarako toki entitateendako dirulaguntzak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).
- 99008-7 “Hirugarren adineko zentroetako obra eta ekipamenduak egiteko transferentziak, irabazasmorik gabeko entitateentzat” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).
- 31180-5 “Haur eta gazteentzako zentro berekietako inbertsioak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).
- 99005-2 “Hirugarren adineko zentroetako obra eta ekipamenduak egiteko transferentziak, toki entitateentzat” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (17. or.).
- 31210-0 “El Vergel egoitzako inbertsioak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (17. or.).
- Tutera eta Nafarroako mugaren tartean, Tarazonako norabidean, N-121 errepidea hobetzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (18. or.).
- Gurutze Gorriaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (18. or.).
- Nafarroako Gobernuak goi mailako konpetizioko taldeak izateko duen interesari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (19. or.).
- “Ingurugiro heziketa programendako eta ingurugiroarekin zerikusia duten bestelako jarduerendako dirulaguntzak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (19. or.).
- Tafallaldeko Udalen Elkartea hiri hondakin solidoak tratatu eta biltzeko inbertsioak egiteko aurreikuspenetatik kanpo uzteari buruzko galdera, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak egina (20. or.).
- 90052-5 “Tuterako Parkeko Obrak” aurrekontu kontusailaren kontabilitate egoerari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (21. or.).
- Nafarroako Foruzaingoaren Antolaketa eta Zereginei buruzko Planaren betetzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (21.or.).
- Castejondik Tuteraraino, N-232 errepideko trafikoaren intentsitateari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (22. or.).
- “Nafarroako RTVEko Kontseilu Aholkuemailearen jarduketa gastuak” izeneko aurrekontu kontusailaren kontabilitate egoerari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (23. or.).
- Bizidun arrainak beitatzat erabiliz arrantzan aritzeko eta ziprinidoak harrapatzeko txapelketetan urak arrainez hornitzeko aukerari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (23. or.).
- Altzania ibaian arrain askoren heriotzari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (24.or.).
- Ziordian, Altzaniako mendietan harrobiak ustiatzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (25. or.).

H SAILA:**Bestelako Testu Arau Emaileak:**

- Nafarroako Etxebizitza Plana (1997-2000) (26. or.).

B Sailsa:
FORU LEGE PROMOSAMENAK

Nafarroako hezkuntzaren eraberritzea arautzeko oinarriari buruzko Foru Lege proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak Nafarroako hezkuntzaren eraberritzea arautzeko oinarriari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Nafarroako hezkuntzaren eraberritzea arautzeko oinarriari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145.2 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako hezkuntzaren eraberritzea arautzeko oinarriari buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak, bere 47. artikuluan xedatu du Nafarroak eskumen osoa duela irakaskuntzaren arauketa eta administrazioan, bere zabalera, maila eta gradu, mota nahiz espezialitate guztietan, deuse-tan ukatu gabe gai honi buruzko manu konstituzionaletan ezarritakoa.

Abuztuaren 31ko 1070/1990 Errege Dekretuak onartu zuen Estatuak unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren arloan zituen funtzio eta zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzea.

Beste alde batetik, urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorriari buruzkoak, bere hirugarren artikuluan ezarri du hezkuntza-administrazioek, zeinek bere eskumen-lurraldean, ezarriko dituztela maila, etapa eta ziklo ezberdinetako curriculumak, horien barruan, beti ere, Gobernuak finkatu gutxieneko irakaskuntzak izango direlarik, ikasle guztien prestakuntza amankomuna eta dagozkien tituluen balioa bermatzeko, aipatu Legeko bigarren artikulua dioen bezala.

Hori horrela, Nafarroak hezkuntzaren arloan duen egoera berezia arautzeko lege-markoa ezarri behar da, unibertsitatez besteko irakaskuntzaren arloan eskuratutako eskumenen erabilera demokratikoa administrazio oinarri eta irizpide nagusiak ezarriko dituen, eta, aldi berean, herritarrek berdintasuneko irakaskuntzarako duten eskubidearen erabilera askea bermatzeko Nafarroako Foru Komunitatean.

Kultura-ondare amankomuna osatzen duten nolakotasun bereziak dituzten herritarrei Nafarroako hezkuntza-eraberritzearen administrazio, antolaketa eta ezartzean gizarte eta erakunde kontrola bermatu beharretik sortu da Lege hau.

Nafarroako hezkuntza-eraberritzea arautzeko oinarriari buruzko Foru Legeak oinarri eta irizpide nagusiak ezarri ditu, arauen bidez eta Legean bertan aurreikusten diren neurriak garatuz erregulatzeko bere eskumen-lurraldeko hezkuntza-sistemaren maila, etapa, ziklo, gradu eta mota ezberdinak.

1. artikulua. 1. Unibertsitatez besteko irakaskuntzaren programazio orokorrak bermatu egingo du sei eta hamasei urte bitarteko herritar guztien derrigorrezko prestakuntza amankomun eta oinarritzakoa.

2. Gutxieneko programazioa errespetatuko da, baina malgutasun nahikoa izango du curriculum-egokitzapenak egin ahal izateko ikasleen aniztasunari arreta egitearren, etapa horretako helburu amankomunak lortzeko asmoz.

2. artikulua. 1. Ikasleen aniztasuna aintzat hartuko da, kultura, gizarte, ekonomi, erlijio, hizkuntza edo pertsona mailako beste edozein ezberdintasunen bidez agertzen baitira, eta ezberdintasunak benetan orekatzeko tratamendua bilatuko da.

2. Aniztasuna aintzat hartzeak taldeen heterogeneotasuna errespetatuko du, oro har. Bereizkeriarik ezaren hatsapena izango du gidari eta asimilatutako gizarte-estereotipoak gainditzera joko du.

3. Salbuespen gisa, eta banaka-banaka, ikas-taldearen tutorearen bitartez egingo zaie arreta egokitzeko arazoak dituzten ikasleei. Hezkuntza Departamentuko teknikariek ere parte hartuko dute, eta aipatu arretaren ondorioz ezin izango da ikaslego hori edo bestelakoa bereizkeriaz tratatuko duen gradu, maila edo unitaterik sortu.

3. artikulua. 1. Derrigorrezko hezkuntzaren xede ditugu herritarrei kulturaren oinarritzko elementuak helaraztea, bakoitzaren betebeharrak bereganatu eta eskubideak erabiltzeko trebatzea eta bizimodu aktibora berdintasunean eta askatasunean heltzeko prestatzea. Arreta berezia egingo zaio elkarbizitza demokratikoaren ohiturak garatzeari.

2. Derrigorrezko etaparen helburuak lortzeko, hezkuntza-sistemaren antolamenduak ikasleen beharrian, gaitasun eta interesak hartuko ditu aintzat. Administrazio Publikoaren ardura da hezkuntza-eskubidea berdintasunean erabiltzeko baldintzak sustatu eta oztopoak gainditzea.

3. Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorri buruzkoak, bere 14. eta 20 .artikuluetan lehen eta bigarren etapetarako derrigorrezkotzat jo dituen gutxieneko alor eta gaiez gain, curriculumak aukerako gaiak izango ditu, gero eta munta handiagoa izango dutenak etapa horretan zehar.

4. Aukerako gaiak xede izango dute hezkuntzaren aldetik erantzuna ematea ikasleek ikasteko

duten beharrian, interes, gaitasun eta erritmo ezberdinei, eta kultura, artea eta teknologia ikasi eta baloratuko dira, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, batez ere. Ikasleen gizarte-trebetasunak garatzeko bide ere izango dira.

4. artikulua. 1. Ikasle guztien prestakuntzaren izaera oinarritzko, orokor eta amankomuna bertutuko da, hamasei urte bitarteko Derrigorrezko Hezkuntzan. Hamasei urtetik gorako ikasleei aukera emango zaie etapa horretako oinarritzko helburuak curriculum desberdinak eratzearen bidez lortzeko.

2. Izaera orokor, oinarritzko eta derrigorrezkoa duten aukera ezberdinak inolaz ere ezingo dira erabili lehen eta bigarren irakaskuntzetan, curriculum edo antolaketa neurri gisa. Aukera edo ibilbide ezberdinak hamasei urtetik aurrera erabiliko dira, edota Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren bukaeran.

3. Ikasle bakoitzaren ahalmen eta gaitasun guztien garapena bermatzeko ahalegina egin beharko da, eta beti ere, unibertsitatez besteko irakaskuntzaren antolaketa eta egitura bereizkeria pertsonala edo norbanakoaren garapenerako oztopo ez izateko beharrezko baliabideak bermatuko dira.

5. artikulua. Administrazioak errespetatu egingo ditu ikastetxeen autonomia curriculum-multzoak osatzeko orduan.

Xedapen Iragankorra

Nafarroako Gobernuak sei hilabeteko epean bidali beharko dio Parlamentuari hezkuntzaren eraberritzea Foru Komunitatean ezartzeko plana. Hurrengoak hartuko ditu kontutan: Nafarroako unibertsitatez besteko irakaskuntzari modu garrantziko eta orokorrean eragiten dioten antolaketa, curriculum, metodologi eta baliabide aldeak, eta xedapen guztiak.

Xedapen Derogatzailea

Derogaturik geratzen dira aurreko artikuluei aurka egiten dieten lerrun bereko edo apalagoko lege-xedapenak.

E SAILA:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa, Nafarroako Gobernua landa ingurunea sustatzeko Plan bat egitera premiatzen duena

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak Nafarroako Gobernua landa ingurunea sustatzeko Plan bat egitera premiatzen duen mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidaren lehenengo bilkura-eguneko eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua ezarritakoaren babesean, hurrengo mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran izapidatzeko: Nafarroako landa-ingurunea sustatzeko plana egiteari buruzko mozioa.

Gizarteak eta botere publikoek gero eta kezka handiagoa agertzen dute landa-ingurunea babestu eta sustatzeko, aldeok dituzten arazoak gaitz endemiko bihurtu dira eta: nekazaritza eta abeltzaintza jaitsi egin dira eta utzi, enplegua gutxitu, herriak abandonatu, biztanleriak, gazteek batez ere, hirietara alde egiten du, emigrazioa, biztanleak zahartzea, zerbitzu publikoak galtzea, biztanleguneak galtzea, bizimoduaren kalitatea galtzea, inbertsio gehiagoren beharra, eta abar. Zoritxarrez, Nafarroa ez da salbuespena aipatu arazoei begira.

Hiriguneetatik urruti dagoen lurralde zatia jo izan badute ere landa-ingurunezat, gizakia nekazaritza eta abeltzaintzatik bizi delarik, oker daude.

Izan ere, gizarte aurreratuetan eskuarki aitortzen zaizkio landa-eremuari zeregin edo eginkizun

anitzak: ekonomikoa, alde batetik, baliabide naturalak arazoiz aprobetxatzeko jarduketak burutzen baitira; bigarrenik, ingurugiro-funtzioa edo ekologikoa, botere publikoek antolatu eta zaindu beharrek ingurua baita, ekosistema ahul eta mehatxatuak biltzen dituelako, balio natural handikoak, eta herri oso baten ingurugiro kalitateari eragiten diolako; eta hirugarrenik, zeregin soziokulturala, aspaldiko ohitura eta kulturek irauten baitute bertan, belau-naldiz belaualdi etorriak, gure idiosinkrasiaren erroak gordetzen dituztenak, herri garenez.

Ez da harrizkoa, beraz, Kataluniako eta Euskadiko autonomi elkarteek, euren landa-lurraldea ikuspuntu hirukoitz horretatik babestu nahian, legeak onartzea, mendirako eskualde planak edota gizarte eta ekonomiaren aldetik atzeratuen dauden aldeentzakoak onesteko, edota Landa Ingurunea Garatzeko Jarduera Plana egitea. Ezta Europako Batasuneko zenbait estatuk aspalditik bultzatu izana landa-eremuaren antolamendua. Edota, are, Europako erakundeak berak egun eztabaidatzen aritzea Landa Eremuari buruzko Europako Karta.

Botere publikoek landa-ingurunea antolatu eta garatu behar dute eta haren funtsezko berezitasunak bultzatu, galzorian ez uzteko. Nafarroak ezin du betebeharrak horretatik jare geratu.

Nafarroarentzako landa-antolamendu eta sustapen politika batek apurto egin behar du hirigune pilatuenetan biltzeko joera eta Komunitate osoko lurralde-oreka lortzen lagundu. Aldi berean, alor politikak elkarri egokitzeko tresna izan behar du landa-guneak sustatu eta biztanleria lurraldean finkatzeko. Gainera, elementu eraginkorra izan behar du Natura zaintzeko, natur baliabideak arazoiz eta orekaz erabiltzeko, eta ibar edo eskualde jakin baten eta, azken finean, Nafarroaren kultur-ezaugarri nagusiak zaintzeko, horiek zaindu eta hobetu nahi direnez gero.

Helburuok erdiesteko, beharrezko da Nafarroako Gobernuak Nafarroako Landa Ingurunea

Sustatzeko Plana onartzea, oinarrizko eta aurreko tresna izango dena gure Komunitateko landa-eremua antolatu eta hobetzeko benetako politika eraginkorra erabili ahal izateko. Esandako planak, bere osoan eta koherentziaz hartuko du Nafarroako landa-eremua, haren zeregin anitza kontutan izango, eta garapen iraunkorrera bideratuko diren jarduerak bultzatuko bertan.

Hori horrela, hurrengo erabaki proposamena aurkezten diogu Nafarroako Parlamentuari:

1.- Nafarroako Gobernuak premiatzea gehienez sei hilabeteko epean Nafarroako Parlamentuari bidal diezaion Nafarroako Landa Ingurunea Sustatzeko Plana, eztabaidatu ahal izateko.

2.- Nafarroako Landa Ingurunea Sustatzeko Planak Landa Eremuari buruzko Europako Kartaren hatsapenak begiratuko ditu, eta hurrengo helburuak izango ditu, gutxienez:

a) Garapen iraunkorraren hatsapenetatik, Nafarroako landa-eskualdeek duten baliabide ekonomikoak bere osoan erabiltzea, eta batez ere, nekazaritza, zentzu zabalean, haren inguruko industrietatik, artisautzatik eta turismotik datozenak, inguru horretako herritarrek Nafarroako gainerakoek duten bizi-maila erdiestera jo dezaten.

b) Nafarroako landa-eskualdeak beharrezko azpiegitura eta ekipamenduez hornitzea, eta daudenak hobetzea, hango biztanleei ematen zaizkien zerbitzuen ondoriozko bizi-maila Nafarroako gainerakoarekin parekatuz joateko.

c) Atzerakada demografikoa geratzea eta, ere berean, Nafarroako lurralde guztiaren garapen armoniosu eta orekatua lortzea.

d) Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideak prestatzea, administrazio-barrutiek batera, Foru Gobernuaren alor jarduketara guztiak jasotzeko.

e) Nafarroako gizarte osoaren mesederako diren landa-eremuaren zereginak baloratzea, eta era berean, landa-herrietako ondare natural, historiko, kultural eta artistikoa babestea, eta, ondorioz, ekonomia, turismo, kirol eta aisiaren garapena paisaia, ingurugiroa eta ekosistemak zaintzearekin uztartu.

f) Landa-eskualdeak administrazio-azpiegituraz hornitzea, behar duten landa-udalei laguntza tekniko bermatuko diena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 33. artikuluko aurrekusi duen administrazio-barrutia bultzatuz.

3.- Nafarroako Landa Ingurunea Sustatzeko Planak mugatuko ditu landa-eskualdeak eta horko udalak, eta horietako bakoitzarendako helburu eta baliabideak ezarriko ditu, hurrengoie begira, gutxienez:

a) Inguru naturala eta haren balio nagusiak zaindu eta babestea (lurraldea, fauna, flora, habitata, babesteko naturguneak, basoak, ura, eta abar)

b) Ondare historiko-artistikoa eta kultura eta hizkuntza tradizioz esanguratsu edo erakusgarrienak aldeztu, zaindu eta bereoneratzea.

c) Nekazaritza jarduerak babestu eta sustatzea (nekazaritza, abeltzaintza, oihangintza, ehiza...)

d) Industria, txikia eta ertaina, batez ere, turismoa eta artisautza sustatu eta babestea.

e) Etxebizitza.

f) Azpiegitura publikoak, komunikazioei arreta berezia eta lehentasuna emanaz.

g) Osasuna.

h) Gizarte laguntza (gazteria, hirugarren adina, ezindua...).

i) Irakaskuntza eta kirola.

j) Tokian tokiko elkarte eta taldeak garatzea.

4.- Nafarroako Landa Ingurunea Sustatzeko Planak bost urterako aurreikuspenak izango ditu, eta atzera aztertu beharko da epe hori bukatzean.

5.- Landa Ingurunea Sustatzeko Planak, gainera, hurrengo dokumentuak izango ditu landa-eremu bakoitzarendako:

– Aldeko bereizketa egiten duten neurriak jarritzea, ekonomi jardueretan inbertitzeari buruz, zein Iruñaz landako herriei zerga-tratamendu ezberdina emateaz denaz bezainbatean.

– Azterketa sozioekonomikoa eta ekonomi, gizarte eta zerbitzu alor ezberdinen garapena aukera azaltzea, helburuak denboraren aldetik eta jarduketara-estrategiaren aldetik zehaztuz.

– Jarduketara-programak, ekintzak, tokia, epeak eta beharrezko inbertsioen kostua aipatuz.

– Nafarroako Gobernuaren inbertsio-plana, jarduketara-programei buruzkoa, eta finantzaketa-publikoaren bideak.

6.- Nafarroako Landa Ingurunea Sustatzeko Plana interesa duten toki entitateei erakutsiko zaie eta Toki Araubidearen Foru Batzordeak, Gizarte Kontseilu Ekonomikoak eta Nafarroako Ingurugiro Kontseiluak txostena egin beharko dute. Halaber, plana gertutzerakoan kontutan izango dira landa-garapenerako erakundeak eta Nafarroako toki entitateen partzuergoak.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 13a

Bozeramalea: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa, ezintasuna duten pertsonen lan-aukerak parekatzea onesten duena

ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak ezintasuna duten pertsonen lan-aukerak parekatzea onesten duen mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Gizarte Gaietako Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariarik emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidaren lehenengo bilkura-eguneko eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentariak, "Izquierda Unida- Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldearen gizarte arazoetako bozeramaleak, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, hurrengo mozioa aurkeztu du Gizarte Arazoetako Batzordean eztabaidatzeko:

Joan den otsailean agertu ziren Batzorde honetara Nafarroako bost elkarte (Nafarroako Gorren Elkarte, Gutxitu Fisikoen Koordinadora, ANASAPS, Down sindromea eta Bidean), sentimenezko akatsak edo ments fisiko edo psikikoa edota adimen gaisotasuna dutenen taldea ordezkatzuz.

Aipatu elkarteek batzorde iraunkorra osatu dute gizarte eta lan integrazioaren alde elkarrekin lanean aritzeko. ANFAS gero sartu zen.

Joan den apirilaren 25ean ezagutu ahal izan genuen bertatik bertara adimen gaisotasuna edota sentimenezko akatsak edo ments fisiko edo psikikoa duten pertsonendako lan normalduko lau esperientzia. Laneko giro normalean aritzen direla ikusi ahal izan genuen eta akatsok dituzten langileen eta haien nagusien iritzia entzun, aipatu esperientziari buruz.

Batzorde honek ikusi ahal izan zuen aipatu lagunak lan giroan nola murgiltzen diren, akatsok dituzten langileei eta enpresari entzun eta baita ere gainerako langileekin nola moldatzen diren.

Bisitaren ondorio orokorra izan da argi eta garbi dagoela pertsonoi lanpostu normaldua izate-

ko aukera zor zaiela, egunero-egunero bizimodu normaldua izateko erronkari aurre egiteko dituzten gaitasunak erakuts ditzaten.

Estatuko Konstituzioak berak babesten du gizartean eta lanean integrazteko eskubidea, 9.2 eta 49. artikuluetan bereziki, botere publikoen esku utzi baitute benetako integrazio eraginkorra aurreikusi eta lortzeko politika garatzea, eta baita hori lortzeko oztopoak gainditzea ere. Era berean, LISMI delakoak, bere 37. artikuluan, pertsona gutxituendako enplegu politikaren helburu nagusi gisa ezarri du laneko sistema arruntean sartzea.

Horiek horrela, horra erabaki proposamena:

Akats psikikoa, adimen gaisotasuna, akats fisiko larria (%60tik gorakoa) eta gortasun larri eta sakona duten pertsonen lan-aukerak berdintzea, hurrengo neurrien bitartez:

1.- 13/1991 Foru Dekretua zabaltzea, 178/1990 Foru Dekretua zabaldu baitzuen, akats fisiko larria, gortasun larri eta sakona, akats psikikoa eta adimen gaisotasuna duten pertsonen gizarteratzeko norbanako laguntza eta prestazioak eman ahal izateko, sei hilabete baino gehiagoz kontratatzen dituzten enpresei lanbide arteko gutxieneko soldata gehi Gizarte Segurantzaren kuota hartzen duen dirulaguntza emanaz.

2.- Nafarroako Administrazio Publikoko zerbitzu orokor eta laguntzaileetako lanpostuetako zuzeneko erreserba (indarreko legediak eskatzen duen %3aren barruan).

Gordetako lanpostu bakoitzarendako gaitasun eta trebetasun berezietan buruzko irizpide eta probak ezartzea, baldintza beretan dauden pertsonen edo taldeendako - akats fisiko larria (%60tik gorakoa), gortasun larri eta sakona, akats psikikoa edo adimen gaisotasuna,

3.- Nafarroan zerbitzu publikoak kontratatu eta 25 langile baino gehiago dituzten enpresentzako arauak ezartzea, haien plantilako langileen %3, gutxienez, akats fisiko larria, gortasun larri eta sakona, akats psikikoa eta adimen gaisotasuna duten pertsonak izan daitezten, diru publikoa gizartearen mesedetan erabiltzeko.

4.- Etorbizuneko Nafarroako Enplegu Zerbitzuak LISMI delakoaren 39. artikulua ezarritakoa bete dezala eta era berean bermatu Enplegu Bulegoaren eta Gizarte Ongizate Departamentuko

Balorazio eta Elbarritasun Zentro Oinarrizkoaren arteko koordinazioa, gaitasun gutxitua duten langileak enpresa publiko eta pribatuetan sartu ahal izateko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 13a

Foru Parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Mozioa, Nafarroako Gobernu Marcillako Gazteluaren zaharberritzeari eta erabilerei buruzko urteanitzeko plana egitera premiatzen duena

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA», «IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA», «EZKER ABERTZALEA» ETA «EUSKO ALKARTASUNA-ASKOTARIKO» PARLAMENTARI TALDEEK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen «Nafarroako Demokraten Elkargunea», «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra», «Ezker Abertzalea» eta «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeek Nafarroako Gobernu Marcillako Gazteluaren zaharberritzeari eta erabilerei buruzko urteanitzeko plana egitera premiatzen duen mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariarik emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidaren lehenengo bilkura-eguneko eguerdiko hamaiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Behean izenpetzen dugun Parlamentari Taldeok, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoarekin bat, hurrengo mozioa aurkeztu dugu Hezkuntza eta Kultura Batzordean eztabaidatzeko

Guztiok dakigu XV. mendetik datorren Marcillako Gazteluaren egoera tamalgarria dela. Herri horren historiarekin lotuta dago eta Erdi Aroan jar daiteke haren sorrera.

1976an erosi zuen Diputazioak aipatu monumentua, obrei ekiteko asmoz, baina ez zituen egin. Hainbat saio izan da gaztelua konpontzeari berrekiteko. Arrakastarik gabe, ordea.

Gutziz arrazoizko eta beharrezko iruditzen zaigu orain lau mende baino gehiago agindu zuten eraispenaren ondorioz zutik iraun zuen gotorleku bakarra konpontzea, denboraren higidurak piskanaka-piskanaka eragiten dion kalteari aurre egin ezinean delako.

Inguru hartako turismo eta kultura ibilbiderako pizgarri gisa ere justifika daiteke haren konponketa, Marcillako Jauregian landa-ingurunearen interpretazio zentroa jar daiteke eta, zirriborroa egina baitago.

Beste alde batetik, Amaiurgo Gaztelua defendatu zutenen oroitarriak, aurtan betetzen baitira 475 urte gaztelua erori eta errautsi zutenetik, kalte larriak ditu, tximista batek jo eta Gaztelua defendatu zutenen izenak dakartzaten xafletako batzuk pitzatu egin direlako.

Hori horrela, hurrengo erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Gobernu Marcillako Gaztelua konpondu eta erabilteari buruzko urteanitzeko plana egitera, aurria ekidin eta kultura eta gizarte jarduketak aurreikus-teko. Era berean, Gobernu Marcillako Gazteluko oroitarritzat ezagutzen den monumentua konpontzeari ekin diezaion.

Horretarako, beharrezko ekintza koordinatuak erabiliko dira Udalarekin.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 14a

Foru Parlamentariarik: Inmaculada Matías Angulo, M^a Isabel Arboniés Bermejo, Patxi Zabaleta eta Begoña Errazti Esnal

Mozioa, lan erreforma gaitzesten duena

«EZKER ABERTZALEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak lan erreforma gaitzesten duen mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietiek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidaren lehenengo bilkura-eguneko eguerdiko hamaikiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Jaime Iribarren Iriartek, Ezker Abertzalea Talde Parlamentarioaren izenean, Ganbararen Arautegiaren 192. artikuluekin eta ondokoekin bat etorriz, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko lan erreforma berriari buruzko mozio hau aurkezten du.

UGT, CCOO, CEOE eta Cepymek sinatu duten lan erreforma berriak, eta ondoko egunetan Nafarroan martxan jarriko dena, ondorio txarrak ekarriko ditu gure gizartearen gehiengoarentzat.

Alde batetik, lan baldintzak kaskartu egingo ditu, kaleratzea erraztu eta merketuz. Gainera, 1984 eta 1994ko erreformek erakutsi diguten bezala, lan merkatuaren liberalizazioak ez du enplegua sortuko. Segurantzarik ez edukitzeak kontrako ondorioak ekartzen ditu, lanaren kalitatea jaitsi eta barneko ezegonkortasuna haunditu egiten da.

Bestetik, komenio kolektiboen eremu estatala indartzeko oinarriak jartzen ditu, lan harremanen esparru propioa eraikitzeke aukerak oraindik gehiago murriztuz.

Hau dela eta, Ezker Abertzalea Talde Parlamentarioak aurkezten du hurrengo erabaki proposamena:

1.- Lan erreforma hau aurrez aurre errefusatzeko du, edukina eta eztabaida eta onespeneraren modu eta eremuarekin ados ez dagoelako.

2.- Benetazko enplegu duina sortzeko behar diren bitarteko guztiak martxan jartzeko Konpromezu sendoa hartzen du. Horretarako, agente sozial guztien partaidetzarekin ireki beharko den eztabaida zabala bultzatuko du.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 16an

Foru Parlamentaria: Jaime Iribarren Iriarte

F Saila:
GALDERAK

Altsasutik igarotzen den Altzania ibaiaren zati bati buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Altsasutik igarotzen den Altzania ibaiaren zati bati buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Egunotan komunikabideetan ikusi ahal izan dugunaren arabera, baita kaltetutako inguruan entzun ere, Altsasutik igarotzen den Altzania ibai-zatian hainbat arrain agertu da hilik.

Badirudi arauz kanpoko isurketa izan daitekeela arrazoa, gertakariaren tokian dagoen usaiagatik, bederen.

Hori horrela, jakin nahi da:

1.- Espedienterik ireki al da gai honi buruz? Baiezkoan, horri buruzko orokortasunak.

2.- Zeri ekin dio Nafarroako Gobernuak, Ingurugiro Departamentuaren bitartez, egintzok argitu ahal izateko?

3.- Zer ondorio atera du Ingurugiro Departamentuak Gurelur Taldeak bidali zizkion ur-laginetarik?

4.- Ingurugiro Departamentuak ba al daki kaltea zerk eragin duen?

5.- Nor edo zer da kaltearen egilea (lante-gia...)?

6.- Zer erantzukizun aurreikusi du Departamentuak ibai ekosistemari egindako kaltearen balizko egilearentzat?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 12a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Erregeordeen edo Kapitaniakoa deritzon Jauregiaren bereoneratze planari buruzko galdera

GREGORIO MARTINEZ EZCARAY FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak Erregeordeen edo Kapitaniakoa deritzon Jauregiaren bereoneratze planari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Gregorio Martínez Ezcarayk, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak badute interesa eraikin zahar eta historikoak bereoneratu eta erakunde publikoen egoitza gisa erabiltzeko, instalazio moderno eta guzti.

Horixe dugu Erregeordeen edo Kapitaniako Jauregi deritzonaren kasua, Maiatzaren Bia kale-

an dagoena, Nafarroako Artxiboa jarri nahi omen dute hor. Hori horrela jakin nahi da:

1.- Eraikina bereoneratzeko proiektua idatzita al dago?

2.- Proiektuaren zer alditan dago une honetan?

3.- Zein da eraikinean erabiliko den jarduketagutegia, Nafarroako Artxibo bihurtu arte?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 13a

Foru Parlamentaria: Gregorio Martínez Ezcaray

Izaba-Arette errepedearen mantenimenduari buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Miguel Angel Larrayoz Lezaun Foru Parlamentari andreak Izaba-Arette errepedearen mantenimenduari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezaunek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Erronkari ibarreko Batzarrak behin eta berriz eskatu du Izaba-Arette errepedeko lurzorua hobetu, garbitu eta matentzea.

Badirudi Nafarroako Izaba eta Frantziako Arette lotzen dituen errepedea, Belaguako mendatea zeharkatzen duena, Nafarroako eta Frantziako administrazioek erdi bana mantentzen dutela. Hori horrela, jakin nahi da:

1.- Ba al da idatzizko hitzarmenik Nafarroako eta Frantziako administrazioen artean, Izaba-Arette errepedearen mantenimenduari buruz?

2.- Nafarroako Gobernuak jarduketaren bat aurreikusi al du aipatu errepedearen mantenimendua hobetzeko, Erronkari Ibarreko Batzarrak behin eta berriz eskatu duen bezala?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 13a

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larrayoz Lezaun

Osasun-kostuei aurre egiteko zerga berria ezartzeari buruzko galdera

M^a ROSARIO VILLANUEVA ITURRALDE FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, M^a Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak osasun-kostuei aurre egiteko zerga berria ezartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

M^a Rosario Villanueva Iturraldek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Gizarte Segurantzaren Estatu Idazkariak oraintsu esan du Estatuko Gobernuaz aztertzen ari dela osasuna finantzatzeko aukera, izaera orokorreko zerga berri baten bitartez, Toledoko Itunak ezarri ildoan barruan. Gaineratu du guztiz onargarria

dela osasun-kostuari aurre egiteko zerga berezia jartzea.

Kataluniako nazionalistek, bestalde, Estatuko Gobernuaren sozio izanik, nahiago omen dute alkohola, tabakoa eta gasolinaren gaineko zerga bereziekin bildutakoa erabili osasun-defizitari aurre egiteko.

Estatuko Gobernuari eusten dion Alderdi Popularrak Nafarroako Gobernuari eusten dion partiduaren sozio denez gero, hauxe jakin nahi da:

1.- Nafarroako Gobernuak bat al dator Alderdi Popularraren iritziarekin, alegia, osasun-kostuei aurre egiteko zerga berria ezarri behar delakoarekin? edo, alderantziz, Kataluniako nazionalisten iritziarekin egiten du bat, alegia, zerga bereziak atxikitzea osasun-defizita berdintzeari?

2.- Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du aipatu osasun-kostuari aurre egiteko zerga bereziarik ezartzea? Baiezkoan, 1998rako aurreikusi den zenbatespena jakin nahi da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 12a

Foru Parlamentaria: M^a Rosario Villanueva Iturralde

29600-8 “Kanpo sustapeneko ekintzak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

JESUS JAVIER ARTEAGA OLLETA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak 29600-8 “Kanpo sustapeneko ekintzak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Jesús Javier Arteaga Olletak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Industri Kontseilaria Parlamentuko Batzordearen aurrean agertu zen, aurrekontu-gastuak hoztea zela eta jasotako agindua zehazteko. Hori horrela hurrengoei buruzko informazioa nahi da:

1.- Zer fondo erabili da hurrengo aurrekontu-kontusailean: 29600-8 lerroa, Kanpo sustapen ekintzak?

2.- Zer fondo hitzartu dira aipatu kontusailean eta zer kontzeptupean?

3.- Zenbat erabil daiteke aipatu aurrekontu-kontusailean?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 12a

Foru Parlamentaria: Jesús Javier Arteaga Olleta

29330-0 “Lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak (Kalitatea Disinua) FEDER programa” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

JESUS JAVIER ARTEAGA OLLETA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak 29330-0 “Lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak (Kalitatea Disinua) FEDER programa” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Jesús Javier Arteaga Olletak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko

Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Industri Kontseilaria Parlamentuko Batzordearen aurrean agertu zen, aurrekontu-gastuak hoztea zela eta jasotako agindua zehazteko. Hori horrela hurrengoei buruzko informazioa nahi da:

1.- Zer fondo erabili da hurrengo aurrekontu-kontusailean: 29330-0 lerroa, Lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak (Kalitatea Diseinua) FEDER programa?

2.- Zer fondo hitzartu dira aipatu kontusailean eta zer kontzeptupean?

3.- Zenbat erabil daiteke aipatu aurrekontu-kontusailean?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 12a

Foru Parlamentaria: Jesús Javier Arteaga Olleta

98020-0 “Azpiegitureako inbertsioak, FEDER programako industriak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

JESUS JAVIER ARTEAGA OLLETA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak 98020-0 “Azpiegitureako inbertsioak, FEDER programako industriak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Jesús Javier Arteaga Olletak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Industri Kontseilaria Parlamentuko Batzordearen aurrean agertu zen, aurrekontu-gastuak hoztea zela eta jasotako agindua zehazteko. Hori horrela hurrengoei buruzko informazioa nahi da:

1.- Zer fondo erabili da hurrengo aurrekontu-kontusailean: 98020-0 lerroa, Azpiegiturako inbertsioak, FEDER programako industriak?

2.- Zer fondo hitzartu dira aipatu kontusailean eta zer kontzeptupean?

3.- Zenbat erabil daiteke aipatu aurrekontu-kontusailean?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 12a

Foru Parlamentaria: Jesús Javier Arteaga Olleta

30400-0 “Enplegu zentro berezientzako transferentziak, eragiketa arruntetarako” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

JESUS JAVIER ARTEAGA OLLETA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak 30400-0 “Enplegu zentro berezientzako transferentziak, eragiketa arruntetarako” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Jesús Javier Arteaga Olletak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko

Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Industri Kontseilaria Parlamentuko Batzordearen aurrean agertu zen, aurrekontu-gastuak hoztea zela eta jasotako agindua zehazteko. Hori horrela hurrengoei buruzko informazioa nahi da:

1.- Zer fondo erabili da hurrengo aurrekontu-kontusailean: 30400-0 lerroa, “Enplegu zentro berezientzako transferentziak, eragiketa arruntetarako”

2.- Zer fondo hitzartu dira aipatu kontusailean eta zer kontzeptupean?

3.- Zenbat erabil daiteke aipatu aurrekontu-kontusailean?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 12a

Foru Parlamentaria: Jesús Javier Arteaga Olleta

31160-0 “Azterlanak eta proiektuak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

JESUS JAVIER ARTEAGA OLLETA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak 31160-0 “Azterlanak eta proiektuak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Jesús Javier Arteaga Olletak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Gizarte Ongizate Kontseilaria Parlamentuko Batzordearen aurrean agertu zen, aurrekontugastuak hoztea zela eta jasotako agindua zehazteko. Hori horrela hurrengoei buruzko informazioa nahi da:

1.- Zer fondo erabili da hurrengo aurrekontu-kontusailean: 31160-0 lerroa, Azterlanak eta proiektuak?

2.- Zer fondo hitzartu dira aipatu kontusailean eta zer kontzeptupean?

3.- Zenbat erabil daiteke aipatu aurrekontu-kontusailean?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 12a

Foru Parlamentaria: Jesús Javier Arteaga Olleta

90021-5 “Kirol instalazioen inbertsioetarako toki entitateendako dirulaguntzak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

JESUS JAVIER ARTEAGA OLLETA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak 90021-5 “Kirol instalazioen inbertsioetarako toki entitateendako dirulaguntzak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Jesús Javier Arteaga Olletak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Gizarte Ongizate Kontseilaria Parlamentuko Batzordearen aurrean agertu zen, aurrekontugastuak hoztea zela eta jasotako agindua zehazteko. Hori horrela hurrengoei buruzko informazioa nahi da:

1.- Zer fondo erabili da hurrengo aurrekontu-kontusailean: 90021-5 lerroa, Kirol instalazioen inbertsioetarako toki entitateendako dirulaguntzak?

2.- Zer fondo hitzartu dira aipatu kontusailean eta zer kontzeptupean?

3.- Zenbat erabil daiteke aipatu aurrekontu-kontusailean?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 12a

Foru Parlamentaria: Jesús Javier Arteaga Olleta

99008-7 “Hirugarren adineko zentroetako obra eta ekipamenduak egiteko transferentziak, irabazasmorik gabeko entitateentzat” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

JESUS JAVIER ARTEAGA OLLETA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak 99008-7 “Hirugarren adineko zentroetako obra eta ekipamenduak egiteko transferentziak, irabazasmorik gabeko entitateentzat” kontusailaren aurrekontu-betetzeariburuz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Jesús Javier Arteaga Olletak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko

Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Gizarte Ongizate Kontseilaria Parlamentuko Batzordearen aurrean agertu zen, aurrekontu-gastuak hoztea zela eta jasotako agindua zehazteko. Hori horrela hurrengoei buruzko informazioa nahi da:

1.- Zer fondo erabili da hurrengo aurrekontu-kontusailean: 99008-7 lerroa, Hirugarren adineko zentroetako obra eta ekipamenduak egiteko transferentziak, irabazasmorik gabeko entitateentzat?

2.- Zer fondo hitzartu dira aipatu kontusailean eta zer kontzeptupean?

3.- Zenbat erabil daiteke aipatu aurrekontu-kontusailean?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 12a

Foru Parlamentaria: Jesús Javier Arteaga Olleta

31180-5 “Haur eta gazteentzako zentro berekietako inbertsioak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

JESUS JAVIER ARTEAGA OLLETA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak 31180-5 “Haur eta gazteentzako zentro berekietako inbertsioak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Jesús Javier Arteaga Olletak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Gizarte Ongizate Kontseilaria Parlamentuko Batzordearen aurrean agertu zen, aurrekontu-gastuak hoztea zela eta jasotako agindua zehazteko. Hori horrela hurrengoei buruzko informazioa nahi da:

1.- Zer fondo erabili da hurrengo aurrekontu-kontusailean: 31180-5 lerroa, Haur eta gazteentzako zentro berekietako inbertsioak?

2.- Zer fondo hitzartu dira aipatu kontusailean eta zer kontzeptupean?

3.- Zenbat erabil daiteke aipatu aurrekontu-kontusailean?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 12a

Foru Parlamentaria: Jesús Javier Arteaga Olleta

99005-2 “Hirugarren adineko zentroetako obra eta ekipamenduak egiteko transferentziak, toki entitateentzat” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

JESUS JAVIER ARTEAGA OLLETA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak 99005-2 “Hirugarren adineko zentroetako obra eta ekipamenduak egiteko transferentziak, toki entitateentzat” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Jesús Javier Arteaga Olletak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Gizarte Ongizate Kontseilaria Parlamentuko Batzordearen aurrean agertu zen, aurrekontugastuak hoztea zela eta jasotako agindua zehazteko. Hori horrela hurrengoei buruzko informazioa nahi da:

1.- Zer fondo erabili da hurrengo aurrekontu-kontusailean: 99005-2 lerroa, Hirugarren adineko zentroetako obra eta ekipamenduak egiteko transferentziak, toki entitateentzat?

2.- Zer fondo hitzartu dira aipatu kontusailean eta zer kontzeptupean?

3.- Zenbat erabil daiteke aipatu aurrekontu-kontusailean?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 12a

Foru Parlamentaria: Jesús Javier Arteaga Olleta

31210-0 “El Vergel egoitzako inbertsioak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

JESUS JAVIER ARTEAGA OLLETA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak 31210-0 “El Vergel egoitzako inbertsioak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Jesús Javier Arteaga Olletak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Gizarte Ongizate Kontseilaria Parlamentuko Batzordearen aurrean agertu zen, aurrekontugastuak hoztea zela eta jasotako agindua zehazteko. Hori horrela hurrengoei buruzko informazioa nahi da:

1.- Zer fondo erabili da hurrengo aurrekontu-kontusailean: 31210-0 lerroa, El Vergel egoitzako inbertsioak?

2.- Zer fondo hitzartu dira aipatu kontusailean eta zer kontzeptupean?

3.- Zenbat erabil daiteke aipatu aurrekontu-kontusailean?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 12a

Foru Parlamentaria: Jesús Javier Arteaga Olleta

Tutera eta Nafarroako mugaren tartean, Tarazonako norabidean, N-121 errepidea hobetzeari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Tutera eta Nafarroako mugaren tartean, Tarazonako norabidean, N-121 errepidea hobetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Tuterako Udaleko Gobernu Batzordeak oraintsu onartu du Monteagudoko Udalaren eskariarekin bat egitea, N-121 errepidea hobet zeko, Tutera eta Nafarroako mugaren bitartean, Tarazonako norabidean.

Errepideari buruzko kezka ez da berria eta udalaren eskaria profitatuz, proiektua aztertu behar-ko litzateke aipatu errepideak N-232aren gainetik duen pasabidearen eta hortik aipatu mugaraino doan zatiaren arazoa konpontzeko, txirindularientzako bidea ere paratuz, inguru guztiko auzoen eskariei erantzuna emateko.

Hori horrela, jakin nahi da:

1.- Gobernuak aurreikusi al duen Tutera eta Monteagudoko udalaren eskaerari jaramon egitea, N-121 errepidea hobetzeko.

2.- Aipatu N-121 errepideak N-232 errepidearen gainetik igarotzean egiten duen korapiloari ekiteko asmorik ote duen, hantxe taxutu den zerbitzu-poligonoarekin nahastu egiten baita, sartu-irtenetarako beharrianak dituenegero.

3.- N-121 errepidearen Tutera eta Monteagudo bitarteko zatian txirindularientzako biderik sartzeko asmorik ote duen.

4.- Zer epetan ekin nahi zaien aipatu obra eta hobekuntzei

Iruñean, 1997ko maiatzaren 13a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Gurutze Gorriaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Gurutze Gorriaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuna-

Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

– Ba al da Gurutze Gorriaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanik (hitzarmena...)? Halakorik bada, erantzunari erantsi.

– Gurutze Gorriarendako aportazio publikoak: zenbatekoa.

– Aurrekontuetarik egiten diren aportazioen banaketa Nafarroako eskualdeetan.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 13a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Nafarroako Gobernuak goi mailako konpetizioko taldeak izateko duen interesari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Nafarroako Gobernuak goi mailako konpetizioko taldeak izateko duen interesari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteuguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Osasuna kili-kolo dabil, kudeaketa kaskarra dela eta, eta oso zail du 2. A mailan irautea;

Miguel Indurainek txirrindularitzari utzi egin dio eta Banesto ez da nafar taldea. Gure Komunitatea da goiko mailetan ordezkariarik ez duen gutxienetako, beisbola (8 talde baino ez ditu liga horrek, eta hiru nafar) eta atletismoa kentzen baditugu. Eskubaloi eta saskibaloiko ohorezko mailan dauden Nafarroako ordezkari bakarrek utzi egingo al diote?

– Nafarroako Gobernuak ba al du interesik Nafarroako goi mailako konpetizioko taldeak izateko, gure Komunitatea ordezkari dezaten?

– Liga erregularretan parte hartzen duten Nafarroako kirol talde esanguratsuek dituzten babestaile-falta dela eta, Gobernuak esku hartzeko asmorik al du arazo horretan?

– Zer neurri hartu ditu edo hartzeko asmoa ditu Gobernuak lehen mailako talde nafarren iraupena bermatzeko Estatu mailako kirol txapelketa ezberdinetan?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 13a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

“Ingurugiro heziketa programendako eta ingurugiroarekin zerikusia duten bestelako jarduerendako dirulaguntzak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “Ingurugiro heziketa programendako eta ingurugiroarekin zerikusia duten bestelako jarduerendako dirulaguntzak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteuguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Orain arte ikastetxeetan hainbat ekinbideri eusteko eta ingurugiro hezkuntza eta Naturarekin maitasuna eta errespetua ikastetxetara hurbiltzeko erabili izan den aurrekontu-kontusail bat, ofizialki aurrekontu izozketarik ez dagoen arren, badirudi izoztuta dagoela Berriaingoa ikastetxe

publikoak egin salaketa publikotik ateratzen denaren arabera.

Aipatu ikastetxetik salatu dute jakinarazi egin zaiela, Lurraldearen Antolamendu eta Ingurugiro Departamentuak, aurrekontu-murrizketak direla eta, bertan behera utzi duela ingurugiro hezkuntza proiektuetarako deialdia.

Hori horrela jakin nahi da:

1.- Ingurugiro hezkuntza programetzako eta Ingurugiroarekin zerikusia duten bestelako jarduketetarako dirulaguntzak izeneko kontusailaren, 11090-7 lerroaren burutze maila. 15 milioi pezeta-ko zuzkidura du.

2.- Zer arrazoi dago Ingurugiro Departamentuak ezezkoa emateko, ingurugiro hezkuntza proiektuak kentzeko, alegia, Beriaingo Ikastetxe Publikoari jakinarazi zaion bezala?

3.- Gaizki ulerturen bat balitz, eta deialdia kendu ordez, atzeratzea pentsatu bada, zer epe-rako aurreikusten da eta noiz erabili ahal izango da aipatu aurrekontu lerroa, ikastetxeek euren jarduketak aurreikusi ahal izateko?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 14a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Tafallaldeko Udalen Elkarteak hiri hondakin solidoak tratatu eta biltzeko inbertsioak egiteko aurreikuspenetatik kanpo uzteari buruzko galdera

«EZKER ABERTZALEA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak Tafallaldeko Udalen Elkarteak hiri hondakin solidoak tratatu eta biltzeko inbertsioak egiteko aurreikuspenetatik kanpo uzteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Adolfo Araiz Flamarique, Ezker Abertzalea talde politikoaren bozeramalea, Parlamentuko Mahaiaren aurrean agertu eta Biltzarreko indarreko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galderak egiten dizkiot Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Departamentuari, idatziz erantzun diezadaten:

Lehena.- 1997-99 hirurterako Toki Azpiegiturei buruzko Hirurterako Planak hiri hondakin solidoen tratamendu eta bilketarako inbertsio-aurreikuspenak sartu ditu, zergatik utzi da Tafallaldeko udalen elkarteak hortik kanpo?

Bigarrena.- Zergatik ez da dagokion deialdi publikoa egin hirurterako inbertsio proposamenak aurkeztu ahal izateko aipatu gaiaren inguruan?

Hirugarrena.- Departamentuak ba al du aipatu udal elkarteak datozen urteetarako dituen inbertsio-beharrizanak jasotzeko asmorik?

Laugarrena.- Hiri hondakin solidoen buruzko plan zuzentzailea 1984koa denez, Departamentuak ba al du hurrengo hilabeteetan plan berria onetsi edo Parlamentuari onar dezan proposatzeko asmorik? Izan ere, gorabeherak, beharrizanak, tratamendu esperientziak asko aldatu dira...

Iruñean, 1997ko maiatzaren 2a

Foru Parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

90052-5 “Tuterako Parkeko Obrak” aurrekontu kontusailaren kontabilitate egoerari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak 90052-5 “Tuterako Parkeko Obrak” aurrekontu kontusailaren kontabilitate egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Aurrekontu eztabaidan zehar, UPN eta PSN-PSOE Parlamentari Taldeek uko egin zioten Nafarroako Ezker Batuak aurkeztutako emendakin bati, zeinaren bitartez Lehendakaritza eta Barne Departamentuko 90052-5 lerroa, Tuterako parkeko obrak izenekoak, 200 milioiz emendatu nahi zen.

Kontrako botoa argi zegoenez, “in voce” emendakin bat aurkeztu zuten, aipatu kontusaila emendagarri egiteko.

Gero, Nafarroako Gobernuak erabakitako aurrekontu-izozketaren ondoren, aipatu taldeak nabarmen geratu dira berriz ere, Lehendakaritza Kontseilariak Parlamentuko Batzordearen aurrean 97-4-10ean egin agerraldian esan zuelako aurrekontu-kontusail hori izoztuko zutela.

Hori horrela, jakin nahi da:

1.- Zein da aipatu kontusailaren kontabilitate-egoera, alegia, Lehendakaritza eta Barne Departamentuko 90052-5 lerroa, Tuterako parkeko obrak izenekoarena?

2.- Jakin nahi da egungo Gobernuak eutsi egingen al dion oraindik Foruzaingoaren koartela Tuteran egiteko planari.

3.- Aurreikusitako epe guztiak bete ez direnez, eta gainera, kontusail hori aukeratu dutenez Departamentuko aurrekontu-izozketa gauzatzeko, noizko aurreikusten da obrak hastea?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 15a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Nafarroako Foruzaingoaren Antolaketa eta Zereginei buruzko Planaren betetzeari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Foruzaingoaren Antolaketa eta Zereginei buruzko Planaren betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Azken bolada honetan Gobernuaren ingurutik esandakoaren arabera, badirudi zalantzan jarri dela Nafarroako Foruzaingoaren Antolaketa eta Zereginei buruzko Plan Zuzentzailearen alde guztiak bete behar diren ala ez.

Zalantzan jarri da osoko poliziaren izaera beharrezkoa, eta horrek erakusten duena da 1994ko ekainaren 28an plan zuzentzailearekin batera onetsi ziren erabakiak ezagutzen ez direla, edo egungo Gobernuak jarrera aldatu duela. Hala balitz, salatu egin beharko luke aipatu plan zuzentzailea eta beste bat proposatu, aldaketa eta guzti, Biltzarreko gehingoaren aldezpena lortzeko.

Hori horrela, jakin nahi da:

1.- Gobernuak eusten al dio Nafarroako Foruzaingoaren Antolaketa eta Zereginei buruzko Plan

Zuzentzailearen alde guztiak garatzeko asmoari, Nafarroako Parlamentuak bere garaian onetsi zituen erabaki eta guzti?

Baiezkoan, zer ekintza eta negoziaketa ari da burutzen Estatuko Gobernuarekin aipatu asmo politikoa eta plan zuzentzailearekin batera onetsitako erabakiek ziotena gauzatu ahal izateko?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 15a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Castejondik Tuteraraino, N-232 errepideko trafikoaren intentsitateari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Castejondik Tuteraraino, N-232 errepideko trafikoaren intentsitateari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

N-232 errepidea Nafarroako Foru Komunitate-tik igarotzen da, eta Castejondik Tuterarara eta Tuteratik Cortesa ibilbide gatazkatsua du, zirkula-

zio handia jasan behar baitu, trafiko astuna, batez ere.

José Ignacio Palacios Herrilan Kontseilari jaunak oraintsu esandakoaren arabera, eguneko 11.000 ibilgailutik gorako trafikoa du aipatu errepideak. Kopuru horrek arrazoizko egiten du bestelako irtenbideak bilatzea.

Hori horrela, jakin nahi da:

1.- N-232 errepideko batez besteko intentsitatea, guztizko trafikoaren arabera, eta ibilgailu astunetan eta gainerakoetan banakatua, hilero, 93-94-95-96 urteetan.

2.- 1993 eta 1996 bitartean, biak barne, aipatu errepideko zati horretan aitortu diren puntu beltzak, aldaketa eta guzti.

3.- Aipatu errepide-zati horretan gertatu diren istripuen kopurua. Aipa bitez hildakoak eta larriki zaurituak, 93, 94, 95 eta 96 urteetan, urteroko datuak emanez.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 15a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

“Nafarroako RTVEko Kontseilu Aholkuemailearen jarduketa gastuak” izeneko aurrekontu kontusailaren kontabilitate egoerari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “Nafarroako RTVEko Kontseilu Aholkuemailearen jarduketa gastuak” izeneko aurrekontu kontusailaren kontabilitate egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikitako

Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Parlamentuan izandako aurrekontu-erabakien ondorioz, Nafarroako RTVEko Kontseilu Aholkuemailearen jarduketa gastuak izeneko aurrekontu-kontusaila gehitu egin zen, gure taldeak uste zuelako gehitu egin behar zela, Biltzarreko gehiengoaren adostasunarekin.

Hori horrela, jakin nahi da:

1.- Zein da (erantzuna ematen den egunean) aipatu kontusailaren kontabilitate-egoera, alegia, Lehendakaritza eta Barne Departamentuko 00580-1 lerroarena?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 15a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Bizidun arrainak beitzat erabiliz arrantzan aritzeko eta ziprinidoak harrapatzeko txapelketetan urak arrainez hornitzeko aukerari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak bizidun arrainak beitzat erabiliz arrantzan aritzeko eta ziprinidoak harrapatzeko txapelketetan urak arrainez hornitzeko aukerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Aferen Salak oraintsu eman du epaia bizidun arrainak beitzat erabiliz arrantzan aritzeko eta ziprinidoak harrapatzeko txapelketetan urak arrainez hornitzeko aukera deuseztuz Nafarroan, espezie naturalak eta basa fauna eta flora babes-teari buruzko 4/89 Legea hausteagatik.

Nafarroako Gobernuak aurka egin zion bere garaian aurkeztu zioten errekursoari, arrantzaren gaineko eskumen osoa zuela argudiatuz.

Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko 2/93 Foru Legeak, bere 27. artikuluan, aukera ematen du urak arrainez hornitzeko, ziprinidoak harrapatzeko txapelketetan edo horietan parte hartzeko ariketetan.

Hartara, emandako epaia Nafarroak arrantzaren arloan duen eskumenaren aurkakoa da, eta

Nafarroako Gobernuak Ehazi eta Arrantza Ataleko Buruak esandakoaren arabera, 1993ko arrantza-debekualdiei buruzko xedapenak eta 2/93 Foru Legeak baimendutako neurriak ageriko onura dakarkie interes natural handiagoa duten beste espezieei (izokina edo amuarraina, konparazio-ne), baita arrantzaleei eta haien jarduketei ere, arte horiek erabilia inoiz ez delako bestelako espezierik arriskuan jartzen.

Horiek horrela, bizidun arrainak beitzat erabilia arrantzan aritzeko eta ziprinidoak harrapatzeko txapelketetan urak arrainez hornitzeko aukera dela eta, hurrengo galdera egiten da:

1.- Nafarroako Gobernuak egokitzat jotzen al du urak arrainez hornitu ahal izatea, ziprinidoak harrapatzeko txapelketetan edo horietan parte hartzeko ariketetan?

2- Nafarroako Gobernuak aurkeztu al du, edo aurkezteko asmorik al du, aipatu epaiaren aurka errekurtsoren bat, 2/1993 Foru Legearen eta Nafarroak arrantzan duen eskumen osoaren aurkako delako?

3.- Nafarroako Gobernuak ba al du 2/1993 Foru Legearen aplikazio Auzitegien aurrean defendatzeko asmorik, urak arrainez hornitu ahal izateari dagokionean, ziprinidoak harrapatzeko txapelketetan edo horietan parte hartzeko ariketetan, hurrengo arrantza aldirako debekuen foru agindu egokia emanez?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 15a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Altzania ibaian arrain askoren heriotzari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Altzania ibaian arrain askoren heriotzari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Talde ekologista batek salatu du Altzania ibaian, Altsasu inguruan, arrain ugari hil egin dela, txerritegi baten eta geltokiko presaren artean dagoen tartean, iragan maiatzaren 8 eta 9an.

Egindako salaketaren arabera, usain sarkorra zegoela egiaztatu ahal izan zen, ibaira egindako isurketaren ondorioz, seguraski.

Hori horrela, Altzania ibaian hildako arrain

ugari agertu denez, hurrengo galderari erantzuna ematea eskatzen da:

1.- Ingurugiro Departamentuak berririk izan al du Altzania ibaian, Altsasutik, esandako tokietatik diraganean, arrain ugari hil egin dela?

2.- Ingurugiro Departamentuak aztertu al du gertakarien lekua? Hildako arrain ugari antzeman al da? Zer espezieri eragin dio kalteak eta zer kopururi, gutxi gorabehera? Mehatxatutzat jotako espezieren bateko alerik hil al da?

3.- Ingurugiro Departamentuak ikertzeari ekin al dio arrainak hiltzearen arrazoia eta arduradunak, halakorik balitz, zeintzuk diren jakiteko?

4.- Ingurugiro Departamentuak uste al du Justiziar gaztigatu behar zaiola gertatutakoa, ingurugiroaren aurkako delitu izan baitaiteke?

5.- Ingurugiro Departamentuak ba al du zehapen-espeditzeari ekiteko asmorik, arrain hilketa-aren errudunen aurka?

6.- Zer neurri hartzeko asmoa du Ingurugiro Departamentuak salatutakoa bezalakorik gerta ez dadin? Zer neurri hartzeko asmoa du ibai zati horretan rrain fauna bereoneratzeko?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 16a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Ziordian, Altzaniako mendietan harrobiak ustiatzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Ziordian, Altzaniako mendietan harrobiak ustiatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaitoten:

Altzaniako mendietan interes natural handiko basoak daude, pagoa (*Fagus Sylvatica*) baita baso-espezie nagusia. Alde horretako mendi gehienak dira herri mendiak eta onura publikokotzat jota daude.

Talde kontserbazionista eta ekologistek oraintsu salatu dute Altzaniako mendietan harrobiak ustiatzen ari direla, Ziordiko udal dermionan, uste baitute jarduera horrek kalte handia eragiten diola balio ekologiko handiko inguru horri, berezko basoa eta hegazti harrapariak baititu. Izan ere, ingurugiro legedia ere hautsi baitezake aipatu jarduerak.

Hori horrela, eta Ziordiko udal dermionan, Altzaniako mendietan harrobiak ustiatzen ari direla eta, hurrengo galderari erantzuna ematea nahi da:

1.- Harrobiren bat ustiatzen ari al dira Altzaniako mendietan, Ziordiko udalean,?

Zertako ari dira ustiaketa horretan? Nor da ustiategiaren sustatzailea? Noiztik ari dira harrobiak ustiatzen?

2.- Harrobi-ustiategi horrek ba al du Ingurugiro Departamentuaren eta dagokion toki entitatearen baimenik, hala hirigintzari buruzkoa, nola jarduera sailkatuen edo mendien gainekoa, dagokion legeriaren arabera?

3.- Ingurugiro eraginari buruzko deklarazioa egin al diote aipatu jarduerari? Ingurugiro eraginari buruzko deklarazioa egin baldin bazaio, zer eragin kaltegarri antzeman da ingurugiroarekiko eta zer neurri zuzentzaile ezarri da?

4.- Ingurugiro eraginari buruzko deklaraziorik egin ez bada, zergatik ez da izapide hori egin eta zer neurri zuzentzaile erabaki dira ingurugiroarekiko eragina gutxitzeko?

5.- Zer balio natural azpimarra daiteke Altzaniako mendietan? Harrobi-ustiategiak eragiten al die balio ekologiko handiko guneei, berezko basoei edota hegazti harrapariak gordetzen diren tokiei?

6.- Altzaniako mendiek ba al dute balio naturalik, Nafarroako basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko Foru Legeak edota Nafarroako naturguneei buruzkoak babesten dituenik, edo basa hegaztiak babesteari buruzko apirilaren 2ko 79/409 Jarraibideak edota berezko habitatak babesteari buruzko maiatzaren 21eko 92/43 Jarraibideak euren baitan hartzen dutenik? Harrobi-ustiategiak ukitzen al ditu aipatu balio naturalak?

7.- Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du Altzaniako mendiak babesteko figura bereziren bat, edota naturgune edo faunaren habitat deklarazioa, onura publikoko menditzat jotzeaz gain? Zein aplikatuko du eta zer epetan?

8.- Nafarroako Gobernuak naturguneei buruzko zer araubide juridiko jotzen du egokitzen aipatu mendiak gerora begira babesteko?

9.- Nafarroako Gobernuak uste al du Altzaniako mendietako harrobi-ustiateketak ingurugiro-legeria urratzen duela, salatu izan den bezala? Zergatik?

10.- Nafarroako Gobernuak jarduketaren bat burutu al du han bertan, arau-hauste edo legez kontrarik dagoela egiaztatu ahal izateko?

11.- Zer neurri zehatz hartu du Nafarroako Gobernuak ingurugiro-legeria Altzaniako mendietako harrobi-ustiategietatik begiratzeko, edota, legeria hautsi egin bada, bereoneratzeko?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 17a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

H Salla:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

Nafarroako Etxebizitza Plana (1997-2000)

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen:

“Nafarroako Gobernuak, 1997ko maiatzaren 12an harturiko erabakiaren bitartez, Parlamentura bidali du Nafarroako Etxebizitza Plana (1997-2000), Parlamentuak bere iritzia eman dezan.

Horren ondorioz, Bozeramaleen Batzarrari entzun ondoren, Erregelamenduko 197. artikulua xedatuarekin bat, hona

ERABAKIA

Lehena. Nafarroako Etxebizitza Plana (1997-2000) tramitera onartzea.

Bigarrena. Hari buruzko iritzia Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak emango duela xedatu.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

(Oharra: Plana Foru Parlamentari jaun-andreen esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorren bulegoan).



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.800 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 130 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 165 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--